

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

1765

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki bat argitara emateko. Erabaki horren bitartez, zenbait diru-baliabide esleitzen dira Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2025eko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horrek oinarri arautzaileak ezartzen ditu, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako dirulaguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2025eko apirilaren 10eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak 2025ean finantzatzeko. Agindu horren bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2025eko apirilaren 10eko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako dirulaguntzak 2025eko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horrek oinarri arautzaileak ezartzen ditu, langabezia-prestazioa ordainketa bakar osoko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako dirulaguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bigarrena.— Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabaki horrek ondorioak izango dituela ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.— Jakinaraztea, deialdia onartzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 10a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

ERABAKIA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUARENA, ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOAREN 1994KO APIRILAREN 13KO AGINDUAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK 2025EKO EKITALDIAN FINANTZATZEKO. AGINDU HORREK OINARRI ARAUTZAILEAK EZARTZEN DITU, LANGABEZIA-PRESTAZIOA ORDAINKETA BAKARREKO MODALITATEAN JASOTZEN DUTENEI GIZARTE SEGURANTZAKO KUOTEN ORDAINKETAN OINARRITUTAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO, 1044/1985 ERREGE DEKRETUAREN 4.2 ARTIKULUAN EZARRITAKOARI JARRAIKIZ

Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduak oinarri arautzaileak ezarri zituen Gizarte Segurantzako kuoten dirulaguntzak emateko, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Bada, agindu horren helburua da kotizaziopeko langabezia-prestazioa jasotzen dutenen autoenplegua erraztera bideratutako dirulaguntzak arautzea. Dirulaguntza horien bidez, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzeko eskubidea baliatu dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egiten zaie, kuota horien egungo balioaren arabera, betiere ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuak eta beste arau batzuen bidez gerora txertatutako aldaketek aukera ematen diete entitate kudeatzaileei langabezia-prestazioaren zenbatekoa ordainketa bakar batean ordaintzeko, egungo balioaren arabera, prestazioen onuradun izanik kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide-langile edo lan-bazkide gisa –modu egonkorrean– sartu nahi dutenei edo langile autonomo gisa jarduera bat egin nahi dutenei –baldin eta ez badute alta ematen mendekotasun ekonomikoa duten langile autonomo gisa–, bai eta jasotako zenbatekoa honetarako erabiliko dutenei: ekarpen bat egiteko merkataritza-entitate sortu berri baten kapital sozialari edo ekarpenaren aurreko gehienez ere 12 hilabeteetan sortu den merkataritza-entitate baten kapital sozialari –baldin eta sozietatearen benetako kontrola eskuratzen badute, entitatean jarduera profesional bat egiten badute, eta Gizarte Segurantzaren alta ematen badute Norberaren Konturako Langileen Erregimen Berezian edo Itsasoko Langileen Erregimen Berezian–.

Eskubide hori baliatzen duten langileek jasoko duten dirulaguntza hauxe izango da: langile autonomo gisa Gizarte Segurantzaren dagokien erregimenean duten kuotaren % 50, gutxieneko kotizazio-mailaren arabera kalkulatuta; edo, langileek langabezia-prestazioa jaso duten bitartean Gizarte Segurantzaren, dagokion erregimenaren kotizazioetan, egin duten ekarpenaren % 100, baldin eta langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jaso ez bada.

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak. Geroztik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumen da enpleguko, enplegu-prestakuntzako eta autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko programak kudeatzea.

Egun, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago laguntzak erregulatzeko araudi bat, kotizaziopeko langabezia-prestazioaren % 100 ordainketa bakarrean jaso dutenei autoenpleguko ekimenak martxan jartzen lagunduko diena. Horregatik, horrelako araudi bat landu eta indarrean jarri bitartean, dirulaguntzen programa hau gauzatu behar da, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuan ezarritakoa betetzeko.

Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Agindua indarraldi mugagabea du. Bestalde, laguntza hauek emateko prozeduran, ez da lehiaketaren teknika erabiliko. Esleitutako aurrekontu-kreditua edo haren eguneratzeak sortzen dena izango da laguntzak emateko muga, berariaz hala ezarrita baitago aginduaren lehenengo xedapen iragankorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntzak finantzatzeko kreditua jasotzen du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.6 artikuluan xedatutakoa betez. Beraz, aipatutako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen guztizko zenbatekoa jakinarazi behar da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, 20/2023 Legearen 7.2.a) eta 8.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Laguntza hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2025eko ekitaldiko Dirulaguntza Plan Estrategikoan daude aurreikusita. Erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak onartu zuen plana, 2024ko abenduaren 19ko bileran hartutako erabakiaren bidez, eta, hartara, bete egin zuen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1. eta 7.1 artikuluetan xedatutakoa. Plan hori Lanbideren webgunean dago argitaratuta: www.lanbide.euskadi.eus. Dirulaguntza hauek «kalitatezko enplegua, inklusio sozial eta giza garapena bermatzeko» helburu estrategikoa eta «talde-ekintzailatza sustatu etorkizuneko enpresa-erronkei aurre egiteko» gako estrategikoa lortzen lagunduko dute, gizarte segurantzarako kuotak finantzatzeko baitzaizkie ordainketa bakarraren modalitatean langabeziaren ziozko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen.

Bestalde, dirulaguntza hauek kudeatzen dituen administrazioa aldatu egin dela kontuan hartuta, publikotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak errespetatzeko, komeni da laguntzen onuradun izan daitezkeenei informazioa ematea dirulaguntzen prozedurarekin eta aplikatu beharreko erregimen juridikoarekin zerikusia duten alderdi jakin batzuei buruz.

Horregatik guztiagatik, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2025eko apirilaren 10eko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Baliabide ekonomikoak.

300.000 euroko diru-baliabideak esleitzea, 3211-Enplegua programaren kargura, 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko. Izan ere, agindu horrek arautu zuen Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako dirulaguntzak ematea ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritako eskubidea baliatu zutenei, betiere errege-dekretu horren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bigarrena.– Dirulaguntzak jasotzeko eta emateko baldintzak.

1.– Laguntza horiek jasotzeko eta emateko baldintzak Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitakoak izango dira, bai eta hurrengo apartatueta ezarritakoak ere.

2.– Laguntzen onuradun izateko, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduaren 3. artikuluan aurreikusitako betekizunez gain, aplikatzekoak dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako debekuak.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.p) artikuluan xedatutakoa aplikatuta, pertsona onuradunak enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa adierazi beharko du, 20/2023 Legearen beraren 49. artikuluen arabera.

4.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatzen ez dituen betekizunak eskabide-orrian dagoen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira.

Hirugarrena.– Laguntzen kudeaketa.

Laguntzak kudeatzeko alderdi hauei buruz informazioa ematea (alderdi horietan eragina izango du Euskal Autonomia Erkidegoko dirulaguntzen antolakuntzari eta erregimen juridikoari buruzko araudiak zuzenean aplikatzeak):

1.– Ebazpen honetan aipatzen diren dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak honela aurkeztu beharko dira:

Aurrez aurre: deialdi honen eranskinean ageri den eredu ofiziala betez, zeina hemen egongo baita eskuragarri: <https://www.lanbide.euskadi.eus> webguneko <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1008807> atalean, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz), eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lurralde- eta toki-bulegoetan.

Elektronikoki: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez, zeina hemen egongo baita eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1008808>

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak eta jakinarazpenak «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistroan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoan onartzen diren identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzaren ardura da eskabideak kudeatu, izapidetu eta ebaztea.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eskaerak modu ordenatuan ebatziko dira, espedienteak erabat osatuta geratzen diren unearen arabera.

Aurrekontu-zuzkidura amaitzen bada, hala jakinarazi beharko da EHAAn eta Lanbideren web-orrian (<https://www.lanbide.euskadi.eus>), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze zuzendariaren ebazpen baten bidez, eta ebazteke dauden eskabideei dirulaguntzak ukatu egingo zaizkie.

4.– Ebazteko epea gehienez sei hilekoa izango da, dirulaguntza eskabidea aurkezten den egunaz geroztik, eta, epe hori igarotakoan, ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez ezetsi dela ulertuko da.

5.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpenak ez dio amaierarik emango administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

6.– Laguntza-programa hau kudeatzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeaz gain, honako hauek ere aplikatuko dira: oinarrizko araudia jasotzen duen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta hori garatzen duen erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua; eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketaren araubide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituena.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Prozedurak izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak, Lanbide zuzenbide pribatuko ente publiko bihurtu ondoren.

Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan (Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak aldatua) xedatutakoarekin bat etorriz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publiko bihurtzen den egunetik aurrera, eta haren egitura organikoa aldatu eta haren zuzendaritza-kideak izendatzen diren egunetik aurrera, diru-baliabide-esleipen honetan organismo autonomoko organoei egiten zaizkien aipamenak zuzenbide pribatuko ente publikoko organoei egindakotzat hartuko dira, baldin eta organo horiei lehenengoei esleitutako eginkizunak badagozkie estatutuetan xedatutakoaren arabera, eta horren berri emango da Lanbideren webgunean.



EREDUA, LANGABEZIA-PRESTAZIOA ORDAINKETA BAKARREKO MODALITATEAN JASOTZEN DUTENEK GIZARTE SEGURANTZAREN KUOTAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA ESKA DEZATEN

Administrazioak betetzeko

Prozeduraren kodea	1	0	0	8	8	0	8
--------------------	---	---	---	---	---	---	---

1. ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN/AIZ
HELBIDEA		HERRIA
POSTA-KODEA	LURRALDE HISTORIKOA	
TELEFONOA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	

2. JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

KOMUNIKAZIO ETA JAKINARAZPENETARAKO KANALA	
Elektronikoa ☐	Postala ☐
KANAL ELEKTRONIKOA AUKERATUZ GERO:	
JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOEN ABISUETARAKO KANALA	
Telefono mugikorra	Helbide elektronikoa
POSTA BIDEZKOA AUKERATUZ GERO:	
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA	HERRIA
POSTA-KODEA	LURRALDE HISTORIKOA
KOMUNIKAZIO-HIZKUNTZA	
Euskara ☐	Gaztelania ☐

3. ONURADUNA

FORMA JURIDIKOA	
ENPRESAREN IZENA	

4. ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

ESKATUTAKO ALDIA	Hasiera-eguna: Amaiera-eguna:
ESKATUTAKO DIRU-ZENBATEKOA (EUROTAN)	



5. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

☒ Markatu x batekin dagokiona

Eskatzaileak hau ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA:

- ☐ Ez dela kondenatua izan, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurra eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

BIGARRENA:

- ☐ Ez dela epai edo administrazio-ebazpen irmo batez kondenatua edo zehatua izan, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galduz, edo, hala izan bada, igarora dela kondenatua edo zehapen-epea.

HIRUGARRENA:

- ☐ Ez duela eskatu borondatezko konkurtso-deklaraziorik, ez dagoela prozedura batean kaudimengabetzat deklaraturik, ez dagoela konkurtsoan deklaraturik —edo, hala egonda ere, hitzarmen bat eraginkor bihurtu dela hartan—, ez dagoela esku-hartze judizialaren pean, eta ez dagoela desgaitua Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera —edo, hala egonda ere, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu dela—.

LAUGARRENA:

- ☐ Ez duela Administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik eragin, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaraturik.

BOSGARRENA:

- ☐ Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

SEIGARRENA:

- ☐ Egoitza fiskala ez duela paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.

ZAZPIGARRENA:

- ☐ Ez duela dirulaguntzen arloko ordaindu gabeko itzulketa-betebeharrik, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA), eta konpromisoa hartzen duela egoera horretan —emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte— gertatzen den edozein aldaketaren berri emateko.

ZORTZIGARRENA:

- ☐ Ez duela zehapen administratibo edo penalik jaso sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik —zehazki, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarritako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa—, edo zehapen-epea igaro dela.

**BEDERATZIGARRENA:**

- ☐ Ez dagoela sartuta laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten dion legeko kausetan, hauek barne:
- Ez edukitzea berdintasun-planik indarrean, nahiz eta enpresa Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta egon.
 - 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, ez edukitzea ezarrita sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitu eta eragozteko neurririk, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dauzkan legeen arabera.
 - LGTBIfobia izatea, bultzatzea edo sustatzea, barnean dela konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea.

HAMARGARRENA:

- ☐ Ez dagoela zehatuta Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik eta administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez edo, hala izan bada ere, ezarri dituela beharrezko neurri zuzentzaileak eta ordaindu duela dagokion zehapena.

HAMAIKAGARRENA:

- ☐ Betetzen duela desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak gordetzeko lege ezarritako kuota edo, hala ez bada, hartu dituela dagozkion neurri alternatiboak.

HAMABIGARRENA:

- ☐ Konpromisoa hartzen duela emango zaion dirulaguntzak, beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatu batzuekin batera, ez duela diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik ekarriko, eta, alde horretatik, (**markatu aukera egokia(k)**):
- ☐ Ez duela xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jaso beste administrazio publiko edo entitate publiko edo pribatuetatik.
 - ☐ Laguntza hau jaso duela: euro, honek emana:
 - ☐ Laguntza eskatu diola(a)ri (*), eta ebazpenaren zain dago.

HAMAHIRUGARRENA (bi aukera hauetako bat hautatu):

- ☐ Ez dagoela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako dirulaguntza itzultzeko ezein prozeduraren eraginpean.
- ☐ Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako dirulaguntza bat itzultzeko prozedura batean sartuta dagoela.
- Programa edo deialdia:
 - Espediente-zenbakia:

HAMALAU GARRENA:

- ☐ Konpromisoa hartzen duela enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HAMABOSGARRENA:

- ☐ Betetzen dituela deialdian eskatutako baldintza guztiak, eta eskabide honetan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla.



6. DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamendu-jarduera	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua.
Xedea	Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatzea.
Lagapenen hartzaileak	Arloko eskumena duten administrazio publikoak.
Eskubideak	Zeure datuak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezereztzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo tratamenduari aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaldu bezala
Informazio gehigarria	Gure webgune honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml)
Xedapen hauek betetzeko: - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) - Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)	

7. ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA

- Egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dira, webgune honetan: <https://www.euskadi.eus>. Webgune horretara sartzeko esteka bat egongo da Lanbideren webgunean bertan ere.
- Aurrez aurre, honako leku hauetan:
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentralak. Jose Atxotegi kalea 1, 01009 VITORIA-GASTEIZ
 - Arabako Lurralde Bulegoa: Antilletako pasabidea 14, behea, 01012 VITORIA-GASTEIZ
 - Bizkaiko Lurralde Bulegoa: Ercilla kalea 4, 48009 BILBAO
 - Gipuzkoako Lurralde Bulegoa: San Martzial kalea 12, 20005 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
 - Tokiko enplegu-bulegoak, aurretiazko hitzordua hartuta
- Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

8. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1994ko apirilaren 13ko Aginduaren 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza ordaintzeko, kotizazio-buletinak aurkezteko epea 6 hilekoa izango da, dirulaguntza eman den hilabetetik aurrera.

Hasierako eskaera honako agiri hauekin batera aurkeztuko da:

- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren kapitalizazioa emateko egindako ebazpena.
- Probaldia gainditu izana egiaztatzen duen agiria, kooperatibisten kasuan.
- Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartuz gero:
 - Eskatutako aldi guztiari dagozkion nominak.



- b. Kotizazioen likidazio-ordainagiriak eta eskatutako aldi guztiari dagokion langileen zerrenda nominala.

4. Gizarte Segurantzaren Langile Autonomoen Erregimen Berezian sartuz gero:

- a. Autonomoen matrizea edo diruz lagundutako aldi guztiari dagozkion hilabeteetan ordaindu izana egiaztatzen duen finantza-entitatearen ordainagiria.

Hasierako eskaera egin ondoren, aurrerago dokumentazioa aurkezten denean, 3. edo 4. puntuetan jasotakoa baino ez da aurkeztuko, kasu bakoitzean dagokion araubidearen arabera. Hiru hilean behin aurkeztuko da, bai eta langabeziaren ziozko prestazioa kobratzen aritu den denboraren pareko aldian ere, baldin eta hura kapitalizatzeko eskatu ez bada.

9. INFORMAZIO GEHIGARRIA

1.- Dokumenturik ez aurkezteko eskubidea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta zu berariaz aurka agertzen ez bazara, jakinarazten dizugu Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, honako dokumentu hauek eskuratuko dituela bitarteko elektronikoz. Berariaz adierazten baduzu ez duzula baimenik ematen Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak dokumentu horietakoren bat eskuratzeko, ondoren adierazitako laukitxoan adierazi beharko duzu, eta, beraz, eskabide honekin batera aurkeztu beharko dituzu dokumentuak:

Baimena eman ezean

- Zerga-betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria

☐
☐

2.- Datu pertsonalak egiaztatzea.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, beharrezko diren egiaztapenak egingo dituela eskabide honetan adierazi diren eta administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalak egiazkoak direla egiaztatzeko.

3.- Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan.

Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, pertsona edo entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du.

Entitatea ez badago erregistratuta, edo Ogasun eta Finantza Sailaren hirugarrenen erregistroko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimakia bete beharko du hemen adierazitako ereduaren arabera: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuaren-aldaketa/>.

.....ekoarena.

Eskatzailearen sinadura